



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Macbeth, Mendi-Mendiyan, Dido & Aeneas eta Garai zekenak ekoizpen lan propioak azpimarragarri Arriaga Antzokiaren 2018-2019 denboraldi berri zabal, anitz eta harrigarrian

- Alex Gerediaga zuzendari gazteak *Macbeth* euskaraz eta gaztelaniaz eszenara eramateko erronkari egingo dio aurre, eta Calixto Bieitok *Mendi-Mendiyan*, Usandizagaren konposizio liriko handia, zuzenduko du.
- Barbora Horáková Jolyk euskal interpretatzaileak zuzenduko ditu *Dido & Aeneas* operan, eta Raúl Cancelok *Garai zekenak-Tiempos mezquinos* antzezlanaz zuzenduko du, Ibsenen Hedda Gabler oinarrian duen Denise Despeyrouxen testua.
- Arriaga Antzokiak nazioarteko statusari eutsiko dio *Waiting (Itxaronaldia)* lanarekin, Calixto Bieitoren zuzendaritzapean, baita ere, Norvegiako Bergen International Festivalarekin batera ekoiztutako lana.
- Antzerkiko programazioak *Ghero*, *Ocaña* eta *Galerna* euskal antzerkiko estreinaldiak, Espainiako figurak eta nazioarteko antzerkiaren kalitatearen adibide den Ricci/Forte konpainia italiarraren obra bat jasoko ditu.
- Izen handien artean Concha Velasco, Josep María Pou, Juan Echanove, Marta Etura, Israel Elejalde, Alberto San Juan, Carmelo Gómez, Ana Torrent, Gonzalo de Castro edo Verónica Echegui, besteak beste.
- Dantzari dagokionez, Kukai, Beti Jai Alai edo Mikel del Valle, baita Shaolin monjeak, Sara Baras eta María Pagés bailaoreak eta Dada Masilo koreografoaren (Hego Afrika), Sasha Waltz & Guests (Alemania) eta Ballett Theater Baselen (Suitza) sorkuntza lanak ikusi ahal izango ditugu.
- Musika hitzordu azpimarragarriak dira Philippe Jaroussky kontratenorearen emanaldia eta Philip Glassen *Einstein on the beach* operaren kontzertu dramatizatua, Suzanne Vega abeslariaren partaidetzaz.
- Hiria indar frankisten esku erori eta 80 urte betetzean Bilboko Udalak Luis de Pablori egindako enkargua den *La caída de Bilbao* lanaren estreinaldia izango da denboraldiko beste musika ikuskizun garrantzitsuenetakoa.
- Bestelako generoek ere izango dute lekua, hala nola zartzuela, Emilio Sagiren *Luna de miel en el Cairo* lanarekin; La Fura del Bausen *Carmina Burana* kantata ikusgarria, edo Les 7 doigts-en *Bosch Dreams* zirkua.

Bilbon, 2018ko ekainaren 6an.- Calixto Bieito Arriaga Antzokiko Zuzendari Artistikoak eta **Nekane Alonso** Arriaga Antzokiaren presidente efektibo eta Bilboko Udaleko Kultura zinegotziak, Arriaga Antzokiak 2018-2019 denboraldian, 2018ko abuztutik 2019ko ekainera bitartean, biak barne, eskainiko dituen ikuskizunen programazioaren berri eman dute gaur goizean prentsaurrekoan. Egia esan, gaur

iragarri diren berrikuntzak irailaren erdialdetik aurrera etorriko dira, izan ere, dagoeneko ezaguna da zein izango den udako eta Aste Nagusiko programazioko ikuskizun nagusia, *Adiós Arturo* (abuztuaren 11tik irailaren 9ra), bere estiloarekin bat etorritik, ikus-entzule guztiak dibertituko dituen La Cubana konpainiaren azken lana.

Programazioa oso anitza da, elkarren artean oso desberdinak diren eta, ondorioz, gustu guztietako ikus-entzuleei zuzenduta dauden ikuskizunez osatutakoa. Aberastasun horren ondorioz, Arriagara hurbildu nahi dutenek musika-emanaldiez, antzerkiaz, kontzertuez, dantzez, operaz eta lirikaz, zirkuaz, zartzelaz edo kantata batez gozatu ahaliko dute. Denetik, finean. Horrela, Arriagako agertokitik, sentimenak piztea bilatuko duten artistak eta oso proposamen sortzaileak igaroko dira.

Azken urteetako ildoari jarraituz, programazioak bultzada eman gura dio bertako eszenari, Bilboko, Bizkaiko eta Euskadiko artistekin duen konplizitatearen bitartez; Espainiako Estatuan egiten den antzerki hoberena eskaintzea eta Arriaga Antzokiak nazioarte mailan duen posizionamendu bikainari eustea ere nahi du.

Ekoizpen propioa

Arriaga Antzokiak ikuskizunen ekoizpen lan garrantzitsua ere egingo du beste urte batez. Antzerkiaren arloan, Arriagak gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren euskal zuzendari birengan jarri du konfiantza bere ekoizpen lan propioei forma emateko. Ordena kronologikoan, Arriagaren zigilua eramango duen lehenengo lana **Garai zekenak-Tiempos mezquinos** izango da, eta **Raúl Cancelok** zuzenduko du. Henrik Ibsen-en *Hedda Gabler* lanean oinarritutako Denise Despeyroux-en jatorrizko testua da. Lan horren berezitasun nagusietakoa antzokiko hainbat lekutik egingo dela da, ibilbide fisikoa eta emozionala marraztuz. Hori dela eta, leku kopurua txikia izango da. Beste berezitasun bat, antzezlana azaroaren 27tik 2019ko urtarrilaren 24ra bitartean egongo dela karteldegian izango da. Epealdi horretan emanaldi ugari izango ditu, goizeko eta arratsaldeko saioekin, euskaraz eta gaztelaniaz, ahalik eta pertsona gehienek izan dezaten Arriagaren ekoizpen lan berriaz gozatzeko aukera. Antzezlanaren interpretatzaileak **Miren Gaztañaga, Kepa Errasti, Arantza Goikoetxea, Gabriel Ocina** eta **Aritz Rodríguez** izango dira.

Denboraldiko antzerki ekoizpen handia **Macbeth** izango da, Shakespeareren eta literaturaren historiako klasikoa. Arriaga Antzokiak datorren urteko otsailaren 7tik 17ra eramango du eszenara, **Alex Gerediaga** zuzendariaren eskutik. Gerediagak eta bere taldeak tragedia aztoragarri eta odoltsu honen erronka hartu dute; bertan kontatzen denari leial izatea bilatzen dute, baina eszenako eta zineko kodeak erlazionatzean oinarritutako euren ohiko sorkuntza lana baztertu barik. Arriaga antzokiko ekoizpen lan berri hau gaztelaniaz (4 emanaldi) eta euskaraz (5 emanaldi) aurkeztuko da, eta hori ez da oso ohikoa Shakespeareren lanetan. Berriro ere, tokiko eszenaren aldeko apustua berretsi egingo da, euskal antzezle ugarik osatutako taldearekin. Horien artean daude **Miren Gaztañaga** (partaidetza errepikatuko du, *Garai zekenak* lanean ere hartuko baitu parte), **Mikel Losada, Iosu Florentino, Arrate Etxeberria, Na Gomes, Gabriel Ocina** (horrek ere errepikatuko du), **Maria Urcelay, Leire Ucha, Sandra Fdez. Aguirre** eta **Koldo Olabarri**, oraindik itxi barik dagoen antzezle taldean.

Horrez gain, azpimarratu behar da, Bilboko Arriaga Antzokiak, Vitoria-Gasteizko Principal Antzokiak eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak bultzatutako "Nuevas dramaturgias – Antzerkigintza berriak" ekimenaren barruan aukeratutako bi proiekturen emanaldiak jasoko dituela Arriaga Antzokiak. Urtarrilaren 15ean euskaraz eta 16an gaztelaniaz, ikus-entzuleek **Erlauntza-El enjambre** ikusi ahal izango dute, **Mireia Gabilondok** zuzendutako Kepa Errastiren testua. Eta astebete geroago, urtarrilaren 22an eta 23an, Arriagak **Galerna** lanaren erabateko estreinaldia jasoko du. Lan hori

hiru antzokiek ekoiztu dute, Pabellón 6rekin batera. **Ramon Bareak** zuzentzen du Tamara Gutiérrezen lana.

Beste alde batetik, oraindik indarrean dagoen denboraldi honetan *Obabakoak* lanarekin eta Bernardo Atxagarekin egin duen bezala, **Calixto Bieitok** lehen mailako euskal egile baten lan handi bat eszenaratzeko erronkari egingo dio aurre, Arriaga Antzokiaren denboraldiko ekoizpen lan propio handienetakoa izango den beste lan batean. Oraingo honetan opera lana izango da eta **Erik Nielsen**ek burutuko du musikaren zuzendaritza. **Mendi-Mendiyan** harribitxi lirikoaz ari gara, Jose Maria Usandizagaren lan nagusietakoa. *Mendi-Mendiyan* Usandizagaren lehenengo lan lirikoa izan zen, Bilboko Koral Elkarteak 1909an enkargatu ziona eta 1910eko maiatzaren 21ean Campos Elíseos Antzokian, arrakasta izugarriarekin, estreinatu zen opera. Dakigunez, Arriaga Antzokiko lehenengo emanaldia 1911ko maiatzaren amaieran izan zen. Duela denbora gutxiago, lan hori 1987an eszenaratu zen azken aldiz Arriaga Antzokian. Urte batzuk geroago, 2001ean, beste bertsio bat egin zen, baina kontzertu formatuan. Orain, 2018-2019 denboraldiari amaiera bikaina emateko, datorren urteko ekainaren 20an eta 22an, ikus-entzuleek Calixto Bieitok lan handi horri eskaintzen dion begiradaz gozatu ahal izango dute. Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) eta Bilboko Koral Elkarteak ariko dira parte hartzaileen artean.

Calixto Bieito bera izango da hiru aste geroago, ekainaren 1ean, eskainiko den **Waiting (Itxaronaldia)**, zuzenduko duena. Kontzertu eszenifikatua izango da, bakarlari, abesbatza eta orkestrarekin, eta **Arriaga Antzokiaren eta Norvegiako Bergen International Festivalaren arteko lehenengo ekoizpen lana** izango da eta, ondorioz, Arriagak Europako lirikaren eszenan betetzen duen lekuaren beste adibide bat. Oraindik ezin da ikuskizunari buruzko xehetasun askorik aurreratu (libretoaren egilea **Karl Ove Knausgård** idazle norvegiarra da, eta badakigu Bilbao Orkestra Sinfonikoa hartuko duela parte, baina interpretatzaileen taldea osatu barik dago oraindik). Jakina da, hori bai, hainbat egileren musika interpretatuko dela, horien artean, musika erromantizismoaren ordezkari nagusietakoa den Edvard Grieg (Bergen, Norvegia, 1843ko ekainaren 15a - Bergen, Norvegia, 1907ko irailaren 4a), konposatzaile eta piano jole norvegiarrarena.

Arriaga Antzokiaren beste ekoizpen lan garrantzitsu bat **Dido & Aeneas** izango da. Maiatzaren 3an eta 4an eskainiko da, eta euskal interpretatzailez osatutako taldea izango du, bai antzezleak eta baita abeslariak ere. **Barbora Horáková Jolyk** zuzenduko du **Henry Purcell**en musika bikaina eta **Nahum Tate** (1652-1715) dramaturgo eta poetaren ingelesezko libretoa dituen hiru ekitaldiko operan oinarritutako muntaketa. Nahum Tate, aldi berean, *Brutus of Alba or The Enchanted Lovers* bere tragedian eta Virgilioren *Eneidaren* IV. kantuan oinarritu zen lan hura egiteko. Bere proposamenean, zuzendari txekiar gazteak **Christophe Marlowe** poeta eta dramaturgo ingelesaren testuak ere jasoko ditu. Egile hori oso erlazionatuta egon zen betidanik Shakespearearekin, garaikide izan ziren eta bien lanetan edertasun poetikoa azpimarratu behar da. Ikuskizuneko **testuak euskaraz** kontatu eta eszenaratuko dira, eta **musika ingelesez** interpretatuko da, jatorrizko hizkuntzan.

Bieito Arriaga Antzokiko Zuzendari Artistiko gisa lanean hasi zenetik, gure antzokiari izena ematen dion konposatzaile handia, Juan Crisostomo de Arriaga, urtarrilaren 27 bakoitzean, 1806an egun horretan jaio zela gogoratuz, omentzeko "araua" ezarri da. Bitxia bada ere, egun horretan bertan, urte batzuk lehenago, 1756an, beste konposatzaile handi bat jaio zen, eta Arriaga harekin erlazionatu zuten askok: Wolfgang Amadeus Mozart. Bat etortze hori baliatuz, 2019ko urtarrilaren 27an, **Bilbao Sinfonietta** laukoteak interpretatuko duen **Arriagaren eta Mozarten arteko elkarrizketa** izeneko kamera errezitaldia eskainiko da. Bi jeinuak aurrez aurre jarriko ditu, gure belarriak gozarazteko aukera paregabea izango den lanean.

Amaitzeko, denboraldi honetan, Arriaga Antzokiak **Rubén Fernández Aguirre** piano joleak bultzatuko duen **“Euskal Musika Zikloa”** ekoiztuko du. Piano joleak hiru errezitaldi eskainiko ditu Arriagako foyerrean, abeslari lirikoekin batera, aukeratutako egileen alderdi ez hain ezagunak erakusteko xedez. Bukatzear dagoen denboraldi honetan musika frantsesari eskainitako antzeko zikloaz gozatzeko aukera izan dugu. Euskal konposatzaileei zuzenduta egongo den eta osorik 2019an eskainiko den ziklo horretako lehenengo kontzertua otsailaren 12an emango du **Pancho Corujo** tenoreak, maisuarekin batera Sebastián Iradierren lan hoberenetako batzuk eskainiz. Apirilaren 8an **Marta Ubieta** sopranoa izango da piano jolearekin batera arituko dena Jesus Guridiri eta Pablo Sorozabali eskainitako errezitaldian. Amaitzeko, ekainaren 3an, kontzertua Raveli buruzkoa izango da, eta **Vanessa Goikoetxea** sopranoak eskainiko du, Rubén Fdez. Aguirrerekin batera, oraingoan ere.

Lehen mailako antzerkia

Antzerkia da datorren denboraldiko programazioan pisu gehien izango duen generoa, 21 antzezlan programatuko baitira. Horiei, formatu txikian edo/eta ikus-entzule gutxirentzat eskainiko diren hamar antzezlan baino gehiago gehitu behar zaizkie, “Agertoki Espazioa” izendatuko dugunean.

Antzerki proposamenen artean aipagarriak dira euskal antzerkiari dagokionean estreinaldi bat, une honetan Espainiako estatuan egiten ari diren ikuskizun interesgarrienak eta kalitatezko nazioarteko antzerkiaren adibide bat.

Jadanik aipatu ditugun Arriaga Antzokiaren *Garai zekenak-Tiempos mezquinos* eta *Macbeth* ekoizpen lanez aparte, Euskadin egindako antzerkiak ezinbesteko bi hitzordu izango ditu. Aurrenekoa erabateko estreinaldia da. Azaroaren 20an eta 21ean, Arriaga Antzokiak Tartean Teatroaren eta Euskaltzaindiaren arteko ekoizpena den **Ghero** lanaren erabateko estreinaldia jasoko du, Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko. **Jokin Oregi** izango da **Patxo Telleriaren** obra horren zuzendaria.

Beste mendeurren batek, Eusko Ikaskuntzarenak, beste euskal ikuskizun interesgarri bat bultzatu du: **Hamaika amaren seme (alaba)**. Arrasateko Doke Antzerki Taldeak euskal gizartearen azken ehun urteetako bilakaera historikoaren ikuspegia eskainiko du, 1918an Eusko Ikaskuntza sortu zenetik egin duen bidearekin paraleloan erakutsita. Emanaldia 2019ko urtarrilaren 26an izango da.

Horrez gain, Arriagak estatu mailan egiten ari den hoberena eskainiko du antzerki programazioaren barruan, ikasturte hasieratik artista bikainak ekarriko dituen lehen mailako eskaintza osatuz. Izan ere, **Concha Velasco** eta **Antonio Resines** ikusiko ditugu **El funeral** lanean (irailaren 12tik 16ra) edo **Nacho Novak** Yllana konpainiarentzat egin duen **Ben Hur** lanaren bertsioaz gozatuko dugu (irailaren 26tik 30era). 2018ko urte hau amaitu aurretik, ikus-entzuleek **Josep María Pou** ikusi ahal izango dute **Moby Dick** lanean (urriaren 11tik 14ra), **Sergio Peris-Menchetak** zuzenduta **Pepe Lorente** eta **Victor Clavijo Lehman Trilogy** izenekoan (urriaren 20an eta 21ean), edo **José Luis Gómez** birritan, Teatro de la Abadíaen bi ekoizpen lanetan, lehenengo **Azaña** antzeztuz (azaroaren 8an) eta ondoren **Unamuno** (azaroaren 10ean eta 11n). Urtea amaitu aurretik gurera etorriko dira, baita ere, **Juan Echanove** eta **Ricardo Gómez Rojo** lanarekin (azaroaren 22tik 25era), **Alex Rigolak** zuzenduta **Israel Elejalde** eta **Irene Escolar Un enemigo del pueblo** lanean (azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean), **La joven compañía Playoff** emanaldiarekin (abenduaren 12tik 14ra), eta **Alberto San Juan** berak egindako **Mundo obrero** lana zuzenduz eta interpretatuz (abenduaren 20tik 22ra).

Datorren urtea ere bikaina eta zirrargarria izango da, antzerkiko jarduerari dagokionez. Indar handiz hasiko da, **Carmelo Gómezekin** eta **Ana Torrentekin** *Todas las noches de un día* lanean (urtarrilaren 9tik 13ra), eta urtarrilaren 25ean jarraituko du, nazioarteko antzerki lan bikainarekin: **Still life**. **Ricci/Forte** konpainia italiar ospetsuak, bere zapi arrosarekin eskegita bere buruaz beste egin zuen nerabe erromatarra, gauza bera egin zuten askotariko bat, gogorarazteko omenaldia eskainiko du. Antzerkia errealitatea behatzeko modu berriak erakusteko tresna bilakatuko da, norbanakoen erabakiak eta izaerak errespetatuz. Ikuskizuna italieraz eskainiko da, euskarazko eta gaztelaniazko gain-tituluekin.

Beste lan azpimarragarrietako batzuk hauek izango dira: **El precio** (otsailaren 28tik martxoaren 3ra), **Gonzalo de Castro** protagonista izango den Arthur Millerren klasikoa; **Miguel del Arcok** zuzendutako azken lana, **Ilusiones** izenekoa (martxoaren 8an eta 9an) antzezleen artean **Marta Etura** duena; edo, udaberrian dagoeneko, **Mario Gasek La Stradari**, Felliniren film ezagunari, buruz egin duen berrikuspina (maiatzaren 9tik 12ra), **Verónica Echegui**, **Fernando Cayo** eta **Alberto Iglesias** antzezleekin.

Askoz antzerki gehiago

Hori guztia gutxi balitz, ikus-entzuleek hurbilagoko antzerkiaz ere gozatu ahal izango dute, eszenatokian bertan artistekin batera integratuta edo eszenatokiaren inguruan, harreman zuzenagoa bilatuz. Denboraldi honetan ezaugarri horiek izango dituzten 10 lan baino gehiago egongo dira, eta horien artean, lehen aipatu dugun **Galerna** eta **Ocaña**, Pabellón 6ren ekoizpena, **María Goiricelayak** zuzentzen duen **Unai Izquierdoren** lana, urriaren 7tik 9ra estreinatuko dena Arriaga Antzokian.

Arriagan izen garrantzitsuak ikusiko ditugu, **Adolfo Fernández La soledad del ángel de la guarda** lanarekin (urriaren 2an eta 3an), **César Sarachu Intensamente azules** ikuskizunarekin (azaroaren 6an eta 7an) eta **María Hervás Iphigenia en Vallecas** antzezlanarekin (azaroaren 13an eta 14an), besteak beste.

Beste lan interesgarri batzuk ere ikusi ahal izango ditugu, **Fernando Bernuésen Izoztutako Haizea-Como un viento helado** (urriaren 18an eta 19an); **Ozkar Galáñen Edith Piaf, taxidermia de un gorrión** (urriaren 29an eta 30ean), lan hori dela eta Max sarietarako izendapena jaso zuen **Garbiñe Intxaustirekin** antzezle taldean; baita duela denbora gutxi Donostia Antzerki Saria 2017 lortu zuen **Kepa Errastiren Mami Lebrun** (abenduaren 3an); **Ander Lipusek** zuzendutako eta Fuchs anaiek interpretatutako **Zazpi senideko** (2019ko urtarrilaren 7an eta 8an); **Richard Sahagúnen Caballo/Dostoievski** (urtarrilaren 28an eta 29an); **Javier Liñeraren Barro Rojo** (otsailaren 26an); **María Goiricelayaren Lyceum Club** (martxoaren 6an); eta Pabellón 6ko Konpainia Gaztearen **Los aborígenes** (maiatzaren 7an eta 8an).

Munduko dantza

Beste urte batez, Arriaga Antzokiaren dantza egitarauaren estilo eta jatorri aukera oso handia izango da. Euskal dantza hiru proposamenetan gauzatuko da. Urriaren 31n **Erritu** eszenaratuko da, **Kukai Dantza** taldeak Arriaga Antzokira itzultzeko ekarriko duen ikuskizuna, oraingo honetan Sharon Fridman koreografo ospetsuarekin lankidetzan. Arrakasta handia lortu zuen aurreko bisita 2016an egin zuten, **Oskararekin**, hiru Max Sari, horien artean Dantza Ikuskizun Hoberena, eman zizkien lan bikainarekin. Azaroaren 18an, Basurtun sortutako **Beti Jai Alai** dantza taldeak bere 50. urteurrena ospatuko du Arriagako agertokian, taldea posible egin duten pertsona guztiak omenduz eta, batez ere, taldearen alma materra izan zen eta duela denbora gutxi hil den Jon Pertika. Bukatzeko, otsailaren 21ean, **Mikel del Valle** dantzari eta koreografo gazteak bere azken sorkuntza, **Agate Deuna**, aurkeztuko du, emakumezko arketipoei buruzko lana, **Miren de Miguel** sopranoaren lankidetzarekin.

Flamenko zaleak generoko bi emakume handienetakoen itzuleraz gozatu ahal izango du. Uda honen amaieran, irailaren 19tik 23ra, **Sara Barasek Sombras** lana aurkeztuko du; eta datorren urtearen hasieran, urtarrilaren 18an eta 19an, **María Pagésekin Una oda al tiempo** proposatuko du.

Gabon garaian ere izango dugu dantza, eta oso berezia, familia osoari zuzendutakoa. **PinoXXio**, zazpi Max Sari lortu dituen ikuskizuna da, horien artean ikus-entzule guztiei zuzendutako Ikuskizun Onenarena. **Ananda Dansa** konpainiak, 2006ko Dantza Sari Nazionalak, Collodiren ipuinaren irakurketa berezia egin du, eta pertsonaiak eta istorioa, XXI. mendeko garaikide gisa ikusteko aukera ematen digun intemporalitatea eman dio. Ikuskizuna abenduaren 27tik 29ra egongo da karteldegian.

Nazioartetik lau ikuskizun aukeratu dira, oso desberdinak euren artean, dantza zaleek goza dezaten. Urriaren hasieran, 5ean eta 6an, **Sutra** helduko da Arriagara, Sidi Larbi Cherkaoui koreografoaren, Antony Gormley eskulturagilearen eta Txinan dagoen **Shaolin Tenpluko 19 monje budistaren** arteko lankidetzaren saritua. Osagarri fisiko handia duen ikuskizun harrigarria da, eta Shaolin tradizioa bultzatzen duten filosofia eta fedea eta kung fuarekin duten erlazioa aztertzen ditu, testuinguru garaikidean.

2019an dagoeneko, otsailaren 1ean eta 2an, **Swan Lake** helduko da, **Dada Masilo** hegoafrikarrak, bere herrialdeko koreografo gazte ospetsuenetakoak, egin duen "Beltxargen aintzira"-ren berrirakurketa bikaina. Piezak arrakasta handia lortu du Lyongo dantza biurtekoan, eta ondoren Musée du quai Branlyn, puntetako dantza eta eragin afrikar indartsuak dituen dantza garaikidea birtuosismoz uztartzen dituen koreografiari esker. Balleta "hegoafrikartu" egiten du, baina erabateko errespetuarekin, indar eta bizi berria emanez, sexuen, generoen eta homofobiaren gaiak sartuz, HIESaren eragin izugarria jasaten ari den herrialdean.

Apirilean (12an eta 13an) **Sasha Waltz & Guestsen** txanda izango da, **Kreatur** lan bikainarekin. Waltz koreografo aleman garrantzitsua da, Amsterdamen eta Estatu Batuetan prestatutakoa, 25 urte baino gehiagoko ibilbidea duena bere konpainiaren buru gisa, lan asko eta asko eginez mundu osoan eta goi mailako artistekin elkarlanean arituz, Daniel Barenboimekin, beste askoren artean. Lan horretan dantza indartsua erakusten digu, desegiteko mehatxua duen gizarte irudikatzeke.

Amaitzeko, maiatzaren 24an eta 25ean **Ballett Theater Basel** helduko da Basileatik. Europa Erdialdeko sorkuntza konpainia garrantzitsuenetakoa da, eta hainbat herrialdeetako lehen mailako hogeita hamar dantzari inguru biltzen ditu. Suitzako konpainiak dantza garaikide programa hirukoitza eskainiko du, nazioartean ospetsuak diren hiru koreografoen beste horrenbeste sorkuntza lanez osatutakoa. Energia, gozotasuna eta mistizismoa, goi mailako proposamena osatzeko.

Bakarrak euren generoan

Datorren urteko programazioan azpimarragarria da, baita ere, zartzuelaren itzulera Arriaga Antzokira eta, horrekin batera, **Emilio Sagirena**, etxe honetako aurreko Zuzendari Artistikoarena. Bera da **Luna de miel en el Cairo** bi ekitaldiko opereta komiko ezagunaren zuzendaria. Madrilgo Martin Antzokian 1943ko otsailaren 6an estreinatutako lan honek ezusteko mugetaraino konplikatzen den endreduzko istorio komikoa erakusten du. Zartzuelaren interpretatzaileen artean **Mariola Cantarero**, **Enrique Viana**, **Itxaro Mentxaka** edo **David Menéndez** egongo dira, beste batzuen artean, eta apirilaren 3tik 7ra hartuko du agertokia.

Askoz lehenago, aurtengo urriaren 26an eta 27an, zirku ikuskizun bat eskainiko da, baina ez edozein ikuskizun, goi mailakoa baizik, mundu osoko konpainia

garrantzitsuenetako baten eskutik. Akrobazia eta irudi ikusgarrien artean, Boscoren artelanek bizia hartuko dute **Bosch dreams** lanean. **Les 7 Doigts de la Main** konpainia ospetsuak, Republikerekin lankidetzan, Jheronimus Bosch 500 foundationen eta Holandako Festival Circoloren enkargua jaso zuen, show hori prestatzeko, Bosco margolariaren heriotzaren 500. urteurrena zela eta, 2016an. Orain Bilbora helduko da, Arriaga Antzokian guztiok aho zabalik uzteko.

Musikala izango da programazioan lekua izango duen beste genero bat. Oraingo honetan familia osoari zuzendutako lana Gabonak baino pixka bat lehenago ikusi ahal izango da, abenduaren 15ean eta 16an. Gabonetako ukitu magikoak eszena guztia inguratuko du, Gabonetako pertsonaia mitikoaren bila abentura sinestezina biziko duten **Kai, Mai, Koa** lagunekin.

Amaitzeko, kantata bat ere eskainiko da (abenduaren 6tik 9ra): 3 kontinentetan 160.000 ikus-entzule baino gehiagok ikusi duten **La Fura dels Bausen Carmina Burana**, Carl Orffen musika indartsua La Furaren unibertsoarekin elkartuko duen ikuskizuna. Musika zuzenean eta eszena ikaragarriak eszenatoki gainean, hitzez hitz musikariak barruan hartzen dituen zortzi metroko diametroko zilindroa duen agertokian, irudiek ilargia, desizoztea, eskegita dauden abeslariak... erakusten dituzten bitartean.

Zuzeneko musika

Nazioartean duen oihartzuna dela eta, azpimarratzekoa da **Philippe Jaroussky** kontratenoreak apirilaren 9an eskainiko duen emanaldia. Gaur egun mundu mailako ahots talentu handienetakotzat hartzen da, eta Francesco Cavalliri eskainitako "Ombra mai fu" diskoaren grabazioaren eta argitalpenaren ondorioz egiten ari den biraren barruan etorriko da Arriaga Antzokira. Abeslari frantsesak XVII. mendeko bi opera konposatzaile hobereenen lanekin prestatutako programa eskainiko du, Francesco Cavalli (1602-1676) eta Claudio Monteverdi (1567-1613). Hitzordu ahaztezin horretan, Philippe Jarousskyrekin batera, berarekin sarritan aritzen den eta musika barrokoan eta antzinakoan espezializatuta dagoen Ensemble Artaserse taldea arituko da.

Operari dagokionez, argi bereziz egingo du distira, denboraldiko ekitaldi garrantzitsuenetakoa baita, jatorriz 1976koa den **Philip Glassen Einstein On The Beach** operaren eszenaratzea, kontzertu dramatizatu formatuan. Ezinbesteko hitzordu musikala maiatzaren 26an izango da, eta **Suzanne Vega** abeslari handiaren partaidetza izango du, zazpi musikaririk osatzen duten **Ictus Ensembleren** eta 12 abeslaririk osatutako **Collegium Vocale Genten** interpretazioari ahots collage bikaina ematen dion narratzaile anitz (abestu, errezitatu eta antzeztu egiten du) gisa. Guztiak **Georges-Elie Octorsen** zuzendaritzapean arituko dira, ikus-entzuleen eta artisten arteko hesiak desagerrarazten dituen ikuskizun fresko eta erradikalari forma emateko. Artistek denbora, espazioa eta ikuspuntuak konpartituko dituzte ikus-entzuleekin, Arriaga Antzokia ikusmen eta entzumen gune inguratzailea bilakatuz.

Badira beste musika hitzordu liriko edo/eta klasiko garrantzitsuak. Bat, Baionan jaio eta Ahetzen, Donibane Lohizunetik gertu, bizi diren **Katia eta Marielle Labèque** ahizpen emanaldia da. Azaroaren 15ean **Amoria**, euren euskal sustraiei eskainitako omenaldia aurkeztuko dute. Besteak beste **Carlos Mena** edo **Eñaut Elorrieta** artistek lagunduta, XV. mendetik gaur egunera arteko euskal musika errepertorioan murgildu dira.

Eñaut Elorrieta bera da, hain zuzen ere, atal honetan sar dezakegun beste bat, oraingoan hari boskote batek lagunduta arituko baita, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko bost musikaririk osatutako **Kaabestri String Ensemble**. Zuzenerako **Harian** proiektua defendatuko dute elkarrekin urriaren 28an, Ken Zazpi taldeko abeslariak beste musika eremu batean gozatzeko aukera paregabea, bere ahotsa bi biolinez, biolaz, txeloaz eta kontrabaxuaz inguratuta entzuteko, horretarako egokitutako musika moldaketekin.

Gainera, "Agertoki Espazioa" delakoaren barruan, gutxitutako aforoarekin, opera ikuskizun bat ere izango dugu 2019ko martxoaren 4an eta 5ean. **Marta Eguilior** bilbotar idazle eta antzerkigileak Jean Coucteuren libretoa daukan Francis Poulencen **La voz humana** opera eszenara darama, bere musikaltasunaren alderdi batzuk musikaren gaurkotasunera egokituta eta, baita ere, gaztelerara itzulita. Abeslari bakarrak, **Paula Mendoza** sopranoak, mugatutako espazioak eta piano batek azaltzen dute emakumezko pertsonaia batentzako eta ekitaldi bakarreko tragedia liriko hau.

Ainhoa Artetak oso kontzertu berezia eskainiko du martxoaren 14an, **Rubén Fdez. Aguirre** piano joleak lagunduta. **Con nombre de mujer** izeneko, emakume konposatzaileek musikaren alde egin duten lana eta utzi duten legatua errebindikatzeko duen musika gaua da. Beste garai batean oso garrantzitsuak izan ziren konposatzaileen abestiak interpretatuko dituzte, Pauline Viardotenak edo Clara Schumannenak, besteak beste, eta baita gugandik gertuago daudenenak ere, Matilde Salvadorrenak, adibidez. Bestalde, Fdez. Aguirre maisua bera izango da **Miren Urbieta-Vega** sopranoa **Ametsetan** izeneko kontzertu berezian lagunduko duena. XX. mendeko euskal konposatzaile garrantzitsuenetako batzuei eskainitako omenaldia izan nahi duen emanaldi hori abenduaren 10ean gertatuko da.

Musika estreinaldi handi batekin bukatuko da denboraldia, 2019ko ekainaren 26an: **La caída de Bilbao**. 1937an, Espainiako Gerra Zibilean, hiria indar frankisten esku erori eta 80 urte betetzean 2017an Bilboko Udalak Luis de Pablori egindako enkargua da. Bilborentzat tragikoa izan zen gertakariak 80 urte igaro direnean, Luis de Pablok gerraren izugarrikerien kontrako lana sortu du, orkestrarako (BOS), biolontxelo bakarlarirako (Asier Polo) eta abesbatzarako (Bilboko Korala) kantata gisa.

Eta, jakina, Arriagako agertokiak estilo guztietako artisten eskutik etorriko diren kontzertuak ere jasoko ditu. Euskal folka izango dugu, **Benito Lertxundiri** (abenduaren 2an) edo **Xabi Solano Maizaren** trikitiari esker (martxoaren 17an); estilo anitzetako kantautoreak, **Ismael Serrano** (otsailaren 3an) edo **Albert Pla** (martxoaren 7an); blues ukitu duen rock and rolla **Travellin' Brothersekin** (abenduaren 30ean) edo ukitu melodikoa duena **Sidecars** taldearekin (urtarrilaren 20an); izaera markatua duten emakume biren ahotsak **Silvia Pérez Cruzekin** (abenduaren 19an) eta **Estrella Morenterekin** (apirilaren 14an), eta baita **Izar & Star** zikloaren bederatzigarren edizioaren barruan dagoen oso proposamen berezia, 2019ko maiatzaren 16an egingo den kontzertua. Hainbat euskal pop taldek (McEnroe, Ornamento y Delito & la Bien Querida, Frank eta Rafael Berrio baieztatuta daude, gehitu beharreko ezusteko baten faltan) 70eko abesti melodikoaren mitoak hurbilduko dizkigute, Julio Iglesias, Nino Bravo, Cecilia edo Mocedades, besteak beste.

Aipamen berezia merezi du, baita ere, Loraldia jaialdiak bultzatu eta ekoiztu duen eta Arriagan martxoaren 15ean estreinatuko den **Kalaportu** musika ikuskizunak. Agertokian zenbait abeslari eta bi idazle elkartuko dira, Joseba Sarrionandiaren testuak erabili dituzten abestietan oinarritutako kontzertu poetikoa eskaintzeko.

Bukatzeko, abesbatza kontzertu bat eta orkestra kontzertu bat azpimarratu behar dira. 2019ko martxoaren 10ean, Euskaltzaindiaren mendeurrena dela eta, **Bilboko Korala Elkartearen Euskeria abesbatzak eta Gernikako Gaudeamus Koralak**, denok ezagutzen ditugun eta gure oroimen kolektiboaren parte diren euskal abestien abesbatzerako bertsioa eskainiko digute, **Mende berria kantuz** izenburupean. Ehun gazte inguruk oso abesti ezagunak eskainiko dizkigute, hala nola "Ilargia", "Gaztelugatxe", "Euritan dantzan" edo "Baga biga", beste askoren artean.

Beste alde batetik, apirilaren 20an, gaubela sinfonikoaz gozatuko dugu, 19 urte arteko Euskal Herriko musika zentro guztietako ikasleek osatzen duten eta Jon Malaxetxebarriak zuzentzen duen **Euskadiko Ikasleen Orkestraren (EIO Orkestra)** eta antzeko ezaugarriak dituen **The Derbyshire City & County Youth Orchestra** talde britainiarraren eskutik. Konpartitutako truke esperientzia bikaina (EIO Orkestrak ere Ingalaterrara bidaiatuko du, bertan jotzeko), eta, batez ere, gaztetasunez eta pasioz betetako musika hitzordu bikaina.

Foyer espazioa

Arriaga Antzokiko foyerrak ikuskizunak jasotzen jarraituko du, gertuagoko giro intimistagoan. Aipatutako “Euskal Musika Zikloaz” aparte, ingurune horretan, beste urte batez, Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako “Literatura eta Musika Euskaraz” programa eskainiko da. Datorren denboraldian lau ikuskizun izango ditu, hauek, hain zuzen ere: **Maddi Oihenart** eta **Jérémie Garat** (urriaren 16an), **Jabier Muguruza** (2019ko otsailaren 25ean), **Harkaitz Cano** eta **Maite Larburu** (martxoaren 11n) eta **Miren Agur Meabe** eta **Eraul** (maiatzaren 13an).

Sarrerak salgai uztailaren 2an

2018-2019 denboraldiko ikuskizun guztietarako sarrerak (dagoeneko salgai dauden *Adiós Arturo* ikuskizunerako sarrerak izan ezik) uztailaren 2tik, astelehenetik, aurrera egongo dira ikus-entzuleen esku, Arriaga Antzokiaren ohiko salmenta puntuetan: www.teatroarriaga.eus webgunean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Beste berrikuntza batzuk

2018-2019 denboraldian ordu erdi aurreratuko da irailaren 10etik aurrera (La Cubanaren egonaldia amaitu ondorengoak) astelehenetik larunbatera eskainiko diren ikuskizunen ordutegia. Horrela, egun horretatik aurrera, **astelehenetik larunbatera bitarteko emanaldiak eta kontzertuak 19:30ean hasiko dira**, eta ez 20:00etan, orain arte bezala. Igandeetan ikuskizunak 19:00etan hasiko dira, orain arte bezala.

Beste alde batetik, ikus-entzule gazteei, 16 eta 30 urte artekoak, zuzendutako berrikuntza garrantzitsua azpimarratu behar da. Datorren denboraldirako beste txartel bat jarriko da martxan, eta hori daukana ADISKIDE GAZTEA izango da. Beste abantaila batzuen artean, **%70eko beharapenarekin** sartu ahal izango da “Arriagako Adiskideak” programako ikuskizunetara, sarrera egun berean eskuratuz, arratsaldeko txarteldegi ordutegian, ikuskizuna hasi aurretik. Horrez gain, txartela daukatenek, **txartelaren prezioaren itzulketak** ere lortu ahal izango dute. Eramailleak, bere beharapen txartelarekin eskuratutako 3 sarrera aurkezten baditu eta laugarrena erosten badu, txartela oraindik baliagarri den garaian, antzokiak txartelarengatik ordaindutako 3 euroak itzuliko dizkio. Horrez gain, urtean zehar, bereziki kolektibo horri zuzendutako ekimenak gauzatuko dira, topaketak artistekin, entsegu orokorretara joatea, lehiaketak, eskaintza bereziak sare sozialen bitartez, etab.

Ekimen horrek, kultura ikus-entzule gazteei hurbiltzeko apustua berresten du. Horren harira, urte honetako lehenengo lauhilekoan, gazte talde batek antzokian bertan egin du, Arriaga Antzokia pertsona gazteentzat erakargarriago egiteko ideiak luzatu eta lantzeko xedea izan duten hainbat lan saio eginez. Arriaga Antzokiak Adiskide Gaztearen txartel berri hori indarrean jartzea izan da lan horren emaitzetako bat.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus